

Nor da niretzat Kim Kardashian, “pakistandarra”? Haren berririk ez nekien batere, egunkariek haren heriotzaren berri –beraren anaiaren esku– eman zuten arte. Bideo bat topatu nuen interneten, non azaltzen ziren Kim eta mutil gazte bat, mutila kantuz eta Kim bera dantzan. Baliabide gutxirekin egindako bideoklip musikal horietako bat zen. Bideoan Kimek dantza sentsual bat egiten zuen eta... askoz gehiagorik ez.

Zergatik ohoratu nahi izan dut “ikurrina” erakustaldi eta guzti? Ez al da “gehiegizkoa”?

Nik ezetz uste dut. Izan ere, ez da gauza bera halako bideoklip bat, adibidez, Europan, Estatu Batuetan edo Australian ateratzea, ala Pakistanen, Saudi Arabian edota intransigentziak eta intolerantziak erokeriaren muga guztiak gainditzen dituen beste edozein herrialdetan ateratzea.

Bizitzea –eta hiltzea– egokitu zitzaion kultura erlijioso, patriarkal eta primitibo bati –itolarría eragiterainoko bati– halako erronka bat botatzean, Kim oso neska ausarta izan zela erakutsi zuen. Larrua arriskatu zuen; bere biziarekin ordaindu du.

Beste gizarte batean, esaterako, Mendebaldeko kulturán, Kim “pakistandarrak” akaso irudi kaskarin, txoriburu, jostagarri, sentsual edota pittin bat friboloa emango zuen, eta ziur aski, oharkabean pasatuko zen jende gehienarentzat. Ez du axolarik horrek. Gure seme-alaba guztiek ez dute zertan sentitu behar intelektual zuhur eta gogoetatsuak izatera deituak, ezta deituak ere 18 urterekin bizitzeko alegrantziari uko egitera.

Gaztetxoek, mutilak zen neskak izan, dibertitzeko eskubidea dute, eta eskubide osoa ere badute apurtxo bat txoropitoak eta kaskarinak izateko, eta euren sentsualtasuna erakusteko –besteak beste, euren izaeraren parte delako.

Eta horrelako arrazoi ergel, hutsal eta ezdeus batengatik neskato bati horren prezio altua ordainarazteak niri, hitz lauez esanda, gorrotagarria eta batez ere ikaragarri tristea dela iruditzen zait.

Hala ere, nire ustez, Kim itxura “kaskarin”, “txoro” eta “sentsual” horretaz harago zihoala uste dut. Egia esateko, zerbait oso benazkoa eta funtsezkoa aldarrikatzen ari zen: bere bizitzarekin eta bere gorputzarekin nahi zuena egiteko eskubidea, gizon baten berdina izateko eskubidea, eta finean, emakume aske gisa bizitzeko eskubidea aldarrikatzen ari zen, arraza bateko zein besteko gizon-emakume guztiek izan beharko luketen moduan.

Eta horregatik nolabait ohoratu nahi izan dut Kim-en memoria. Eta gainera, euskaldunontzat horren esangura berezia duen argazkiko ikurrin-erakustaldi horrekin egin nahi izan dut.

“Ohorezko hilketa”, holaxe esaten diete Pakistanen mota horretako krimen higuingarriei. Pentsatzen dut, ezen, nebak beraren arreba erail eta gero, familiaren “ohorea” oso “parte onean” geratu dela orain, eta, horrenbestez, hemendik aurrera, familia horretako kide guztiak ibili ahal izango direla “kopeta gora” munduan zehar...

Bideoklip batean aldakak mugitzen azaltzen bazara, a zer-nolako desohorea, iraina eta lotsaizuna familiarentzat. Baina zure nebak erailtzen bazaitu bideoklip batean dantzan azaldu zarelako, a zer-nolako ohore eta ospe handia famili horrentzat!

Ez dakit Jainkoa ba ote den, baina batzuetan nire buruari galde egiten diot Deabrua benetan ez ote den, eta benetan balitz, a zer-nolako barreak egingo dituen giza ergelkeriaren kontura!

Eta beste gauza bat esango dizuet: “Kim”ez betetako txalupa bat gure kostaldera helduko balitz, nire esku dagoen guztia egingo nuke pertsona horiek gure herrian aterpetzeko; baina “Kim-en neba”z betetako txalupa bat helduko balitz gure kostaldera, mesedez, eman iezadazue txalupa hori kanoikada batez zulatzeko eta itsas hondora bidaltzeko ohorea, miserable horien bizitzek gizateriaren historian jarraipenik izango ez dutela ziurtatzeko.

Eta beste gauza bat ere esango dizuet: ondo dago solidarioak izatea, baina tentu handiz ibili beharra daukagu gure etxeko atea nori zabaldu eta nori ez. Are gehiago kontuan hartuta noizbait esan uste izan dudana: tolerantzia, jatorrizko herrialdean erakutsi behar dela; harrera-herrialdean EZ.